

DONOSTIA ETA BERE AUZOAK

DROGAREN ARAZOA

Drogaren arazoak badu gaurkotasunik gure hirian. Kezkaturik aurkitzen dira Alda Zaharra, Alza, In-txaurrondo... bezelako auzoak.

Bainan gai honen aurrean lanari ekin behar diogu dramatismo historiko eta kidekotasun pasiborik gabe.

Gaia auzoetan eztabaidatu behar da, asanbladatan, bertako erakundeetan, eta abar... leku hauetatik emango baitira alternatiba egokiak, gure ustez sekula ere konsumitzen dutenentzat errepresiboak izan behar ez dutenak.

Drogak dakarten arazoa gogorra bezala biguna, alkohola eta tabakoa tartean sartzen dirala, aspaldikoa dugu, gaur egun aurrez aurre hartu behar duguna lehenbaitlehen eta sakonki bere zainetara joaz benetako errudunak arkitzen saiatuz. Alde batera utzi behar ditugu eta berriz diogu zearo paltsu diren histerismoak eta moralismoak.

Guretzako garbi dago drogaren atzetik interes politiko eta ekonomiko konkretuak gordetzen dirala.

Euskadin droga errealitate objektiboa dugu eta gure herriren askatasun etorkizunerako oztopo handi bat.

Denok ikusi dugu azken urte hautan nola gehiagotu den drogaren trafikoa eta konsumoa, hau dena antolatua eta estudiatua, konsumidore eta kasu batzuetan trafikanteen gaintetik dauden objektibo batzuek lortzeko asmoarekin. Burgesia drogaren gain oinarritzen da beste intento bat gehiago eginez Euskal Herriak bere askatasun nazional eta soziala lortzeko darman prozesua moztu eta desegiteko asmoz, horregatik sartzen dute ain zuzen itxurarik gabe zonarrik burrukalarienetan.

Auzoetan eztabaidatu eta lanerako aportazio bat besterik ez du izan nahi aureran daukazuten material honek, guztion artean soluziorik egokiak bilatzen saia gaitzen, uste gabeen burgesiak programaturik dauzkan interesak defendatu gabe.

Naiz eta batzuetan dependentzi

psikikokoa sortu berez horrelako loyura fisilogikorik ez dakarten droga bigunak bereiztuaz hasiko gara (hachis belarra eta abar...).

Beren kaltea tabakoa eta alkoholarena ainbestekoa edo txikia-goa izaten da. Sortzen dituzten efektu animikoak oso gustagarriak dira, baina bere kalterik handiena droga gogorretako bidearen aurrean jartzen digutela izaten da. Hau dena logika kapitalistaren barruan aurrea beharra sortu eta ondoren bete, irabaziak lortze arren.

Eta hau Donostian egiten ari dira. Denboraldi batzuetan nahita sortutako droga bigunaren palta izaten da, eta momentu berdinean droga gogorraren ubaritzea eta merkatzea. Kasualitate berezi hauek trafikante handiak programatzen dituzte eta gero beren planak «kameloak» aurrera eraman.

Gizon eta emakume askatuez osaturiko gizarte libre bat lortu nahi dugunontzako droga guztiak efektu berdina dute, bizi geran errealitate gogorra biguntzea, eta taktika honek, Donostiako Udaltxean erabiltzen dana ain zuzen, abestruz egaziarena burua gorde eta errealitatea ikusten ez duela-ko berau ez dela ain gogorra izan-go uste izatera besterik ez daramatzagu.

Dependentzi psikikoa eta fisikoa sortzen dutenari buruz droga gogorrek alegia, zzero baztertzea da gure jarrera.

Eragin berdina lortzeko dosisa gehiagotzen joan beharra, teknologiko gehiago behar duen elaboratze

teknikoak gutxi batzuen eskuetan jartzen duela, alderantziz droga bigunez bakoitza bera ornitu liteke, lehen aipatu dugun lotura eta abarrek eramaten gaitu droga mota hauek oso arriskugarriak direla esatera.

Borondaterik eta askatasunik gabe usten dute pertsona eta bere garestitasunak behartzen du kontsumidore-trafikante izatera, era honetan beste pertsonetara zabalduaz edo konsumidore-atrakatzaile bereiztasunik gabe atrakatuaz arrisku giro sozial bat sortuaz, azken egoera hau aprobetxatuaz gure zanpatzaileek beren polizi indarrak eta ekintza zanpatzaileek gehiagotzeko.

Droga gogorrek lortzeko sortzen zaien diru behar honek eraginda gazte burukalariak trafikante, delinkuente, emagalduta eta abar biurtez gainera kasu batzutan errez manipulatu litezkeen drogadikto, defensarik gabekoak beren burua marginatu dutenak, poliziak bere informazio lanetarako erabiltzen ditu, honek dituen lotura guztiakin problematika berezi honetan. Bakoitzak bere buruarekin nahi duena egiteko askatasunaren alde gauden gu Herri Batasunekook. Baina inolako drogaren alde ez dugu jarrrerarik hartzen.

Alkohola eta tabakoa bezala gizarte oitura gisan ezagutu genezakegu droga bigunak, pertsonak bere buruarekin nahi duena egiteko eskubidearen barruan guzti hau.

Baliteke droga bigunen legalizapenean, kontsumoan bezala salerosketan soluzio bide bat egotea.

Era honetan kondizio Sanitario txarretan ibilitakoa ez hartzea, trafikante sarea zati handi batean behintzat lanik gabe uztea, erdi piazora konsumoa gutxitzea eta batez ere droga gogorra sartzeko bideak noala ala moztutzea, lortu litezke erabaki honekin.

Badakigu boterearekin arkitzen den klase dominanteak bere gizarte modelo sozial eta ekonomikoa ezarri nahia dagoela arazo guzti honen oinarrietan.

Guztiok dakigu batzuri sistemaz torturatzen zaien lekuetan Euskadiko trafikante eta droga zabaltzaileeri beren instruzioak ematen dizkietela eta oso ondo tratatu ondoren ordu gutxi barru kaleratzen dituztela komisariatetik.

Arazo baten aurrean lehenengo galdetu behar duguna zeinek aterratzen duen etekina berarengaitik.

Boteredun klaseari bere sisteman sartu arazteko ez zaio aski, familiaren erabilkera burgesa, irakaskuntza, Eliza, Ejerzitoa, telebista, errepresio zuzena, erahilketak, torturak, biolazioak, langileen aur-


kako eta errepresio legeak... euskal gazteriaren sektore burrukalaria desegindu behar du.

Guzti honengaitik ez dugu ezer itxaroten botere publikoetatik eta instituziotatik. Ustelkeria eta benetako errudunak beroietan erreprezentatuk arkitzen bait dira.

Deklarapen moralistak, neurri zanpatzaileak marginatuentzako. eta hitz batean errepresioa besterik ez dugu lortu hoietatik.

Alde Zaharrear esate baterako arazoak maila kezagarriak hartu ditu baina aurrez aurre dramatismo eta histerismo paltsurik gabe, hartu behar dugu. Ez, ez gaude erahiltzaile eta gaizkituen aurrean. Benetako soluzioak bilatzen saia gaitzen salbatzaile izate usteak alde batera utziaz.

Donostiarrentzako Alde Zaharra beste auzoetako erlazio leku izan dugu elkarbizitza zentro natural baten gisa, honek berarekin dakarren bulla eta erosotasunik eza eta guzti. Baina emendik dendarien jokoan erortzera bide luzea dago, Alde Zaharra oinezko utsez, estilo-



eta kategori handiko komertzioekin, ideia honi oztopo izan liteken guztia bidaltzera alegia.

Guretzako garbi dago ez direla arazo honen errudunak saltsaile anbulanteak Zaharrean elkarteko buruzagiak eta beste zenbait komertziantek erakutsi izan nahi dituzten bezala. Baita ere badakigu dendatan saltzen ez diren soinez jantzitako eta ile luze dabilen gazteen arazoa ez dela. Benetako errudunak kartera handi eta kalba garbiak dituztenak direla baizik.

Bizimodu ezberdin batean, aldaturako gizartean, mentalitate berriarekin gizonak gizona zapaltzen ez duela, egoera honetan drogara bizimodua lehuntzeko jobeharrik ez genduke izango, honetan datza guretzako arazo honen konponbide teorikoa.

Bukatzeko eta apertazio gisan honako ideia konkretu hauek bideratzen ditugu, informazio txarrik,

klarifikaziozko debateak, gazteak bildu eta beren ordu librean antolatzeko lekuak, naturarekin kontaktuan bizimodu sana eta kilola egiteko leku egokiak, gure kezka artistikoak desarrolla ahal izateko arte tailer biziak eta beste zenbait gauza.

Bainan benetako errudunak ez digute sekula horrelakorik eman. Ekonomi handiko jauntxoak, atzo eta gaurko zapaltzaileek, beren eskuetan dituzte negozio honen etekinak eta ekonomiaren giltzak.

Benetako errudunen eta bere inguruko aurka erabilli behar ditugu eskuetan ditugun burruka bide guztiak.

Itxaroten dugu herriak berak aurkituko duela arazo honentzako soluzioa, benetako errudunak ordaindu ditzaten egindakoak, joko zikinetan erori gabe eta beren laguntza eskatzera joan gabe.

Droga:

Eguneroko burrukatik atzeratzeko bide bat.